



{m}-2002

‘ENTZUN!’ ERABERRITUA

Entzun! aldizkariak bere 27. zenbakia kaleratu berri du, urriko eta azaroko hilabetei dagokiena. Haatik, aro berri baten hastapena da azken argitalpen hau, *Entzun!* aldizkariaren etorkizun hurbilaren mugarria da. Izan ere, azken ale hau aldaketa handi baten ostean etorri da.

Aldizkaria esku artean hartzea besterik ez dago aldaketaz jabetzeko. Batez ere, diseinuan egin dute jauzi nabarmena. Handiagoa da, kolore biziagoak ditu, eta barrualdearen itxurak ez du zerikusirik lehengoarekin. Oro har, errebista itxura gehiago duela esan daiteke. Maketazio modernoak, itxura elektronikoa duten hizkiak...

Antolaketan ere zenbait gauza aldatu dira. Orain, Eragin komunikazio taldea (besteak beste, The Balde aldizkaria egiten duena) da argitaratzailea, eta hark hartu du *Entzun!* berriaren gidaritza: «Proiektu polita iruditzen zaigu, eta indartzea nahi genuen», esan digu aldizkariaren koordinatzaile lanetan jarduten duen Xabier Sagardiak: «Lehen zuen filosofiar eutsiko dio orain ere aldizkariak, baina gehiago hedatzen saiatuko gara; horrelako aldizkari bat gehiago zabaldu daitekeela uste



dugu, eta gu horretan saiatuko gara».

Edukiei dagokionez, aldizkariaren ardatza euskal taldeak izaten jarraituko dute, «beraiek baitira gure bizkarrezurra; gainera, iruditzen zaigu talde onak, ideia onak eta jende ona dagoela, baina ez direla baloratzen; pentatzen dugu guztion errua izango dela etxean dugunari balioa ez ematea, baina horrekin ahalegin berezia egin nahi dugu».

Bestalde, erreportaje zabalak egiteko asmoa ere badute. Zen-

baki honetan, esate baterako, zentsura hartu dute gaitzat, eta aurrerantzean musikaren unibertsoan eta egunez egunekoan aipagai diren gaiak jorratuko dituzte. Euskal musikari ez ezik, kanpokoari ere begiratuko diote *Entzun!* berrian: «Beste herrialdetan dauden proposamenak ezagutzen saiatuko gara, konplexurik gabe, musika estilo guztiei egin nahi diegu tartea».

Kazetariei dagokionez, kolaboratzaile sare handia izango du *Entzun!* aldizkariak ale honetatik aurrera. Orain arte jardun diren hainbat kolaboratzailek lanean jarraituko dute, eta horiez gain beste hainbat kazetari eta musikari aditu jardungo dira. Xabier Sagardiak atek erabat irekita dagoela dio: «Kolaborazioak egin nahi dituen guztiek eta ideiak edo proposamenak egin nahi dituzten musika zaleek horretarako aukera izango dute, atek zabalik dauzkate».

Salneurria 3 eurokoa da, eta harpidetza egiten duten guztiei, iaz, Eragin komunikazio taldeak kaleratu zuen *Aho bete doinu* elkarrizketa liburua oparituko diete. Informazio gehiago eskura daiteke www.entzun.com webgunean.

06.82.85.82.32 edo
05.59.37.55.50.

Argazkilaritza eta txalaparta / Izura.

Haize Berri elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu ikasturte berrirako. Bata argazkilaritzari buruzkoa da, eta bestea txalapartari buruzkoa. Bi ikastaldiei buruzko informazioa jaso nahi duenak telefono honetan egin dezake: 05.59.37.85.79.

Informatika eta Internet / Bera.

Cederna Garalur garapen agentziak Informatika eta Internet ikastaroak antolatu ditu emakume eta gazte tituludunei zuzenduak. Ikastaroak Cederna Garalurren egoitzan egingen dira, Bidasoako Enpresen Mintegian. Hauek dira ikastaroak eta datak: *Wordekin dokumentuak lantzen hasi* (21etik 24ra), *Worden erabilpen aitzinatuak* (18tik 31ra), *Internet nabigatzen* (azaroaren 4tik 8ra), *Posta elektronikoa* (azaroaren 11tik 14ra) eta *MikroETeen kontabilitate eta kudeaketa informatizatua* (azaroaren 18tik 29ra). Informazioa jasotzeko edo izena emateko hona jo behar duzue: Begoña Iparragirre, 948625122 telefonoa eta bidasoa.admon@cederna.es posta elektronikoa. Izena emateko epea ikastaroa hasi baino astebete lehenago bukatuko da.

Deialdiak

Bilera/Andoain. AHT Gelditu! taldeak martxa bat antolatu du hilaren 27rako, Anoeta eta Urnieta artean egingo duten AHTren bidearen aurka egiteko. Gaia honen inguruan gogoeta egiteko eta martxa antolatzeke gaur, 20:00etan, bilera egingo dute Andoaingo gaztetxean.

Superportuaren aurka/Pasaia. Jaizkibelgo superportuaren aurkako protesta egingo dute, larunbatean, Jaizkibelgo Superportuaren Aurkako taldeko kideek. Hitzordua, 12:00etan egin dute, Buenavistako enparantzan, eta, bertatik, Pasaiko Portu Agintaritzaten aurrera abia-

tuko dira protesta egitera. Guztiak mamuz mozorrotuta joango dira.

Euskal Herriko Foro Soziala / Altsasu.

Euskal Herriko Foro Soziala osatzeko deia egin dute. Lehendabiziko batzarra urriaren larunbatean egingo dute, Altsasun. Harremantarako helbide elektronikoa: pmgp-naehfs@euskalerria.org.

Bertsolaritza

Bertso afari esperimental/Donostia.

Intxaurrendoko euskal astearen baitan, Sustrai Kolina eta Jon Maia bertsolariek eta Unai Elizasu gai jartzaileak bertso afari berezia egingo dute, bihar. Artzak Ortzek elkartean izango da, 21:30ean.

Bizkaiko txapelketa/Amoroto

Larunbatean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren beste kanporaketa bat jokatuko da Amorotoko pilotalekuan, 17:30ean. Bertan lehiatuko dira Jon Eizmendi, Beñat Ugartetxea, Iker Belaustegi, Jabier Olibares, Peru Magdalena eta Matxalen Zabaljauregi bertsolariak.

Bestelakoak

Errezitaldia/Eibar. Kirmen Uribe poetak *Bitartean heldu eskutik* errezitaldia egingo du bihar, 19:30ean, Portalea kultur etxean. Txomin Uribe gitarran eta Josu Aranberri margoak egiten lagun izango ditu.

Magia helduentzat/Donostia. Txanmagoak helduentzako saioa eskainiko du, bihar, 20:30ean, Intxaurrendoko Txiki tabernan.

Antxeta irratiko jaia/Hondarribia.

Bihar, Antxeta irratia jaia egingo dute Muara Elkartean. Lehenengo, bertso afaria egingo dute Jon Martin eta Amets Arzallus bertsolariekin, eta, gauerditik aurrera, Daddy Jeff eta Laia F.M Antxetako Dj-ek alaituko dute gaua.

niko dute bihar, 22:00etan, Bazartxo antzokian.



'La cosa'/Donostia. Amarako Ernest Lluch kultur etxean bideo-foruma egiten dute astelehenero. Datorren astean, *La cosa* (John Carpenter) filma izango da ikusgai eta eztabaidagai.

'Dulce Marta'/Ordizia. Herri antzokian Emakume Zinema zikloa ari dira egiten asteotan. Bihar, Dulce Marta

fima emango dute, gaueko 22:30ean.

Ikastaroak

Bertsogintza eta kulturgintza/Bilbo.

Berbaizu euskara elkarteak bertsogintza eta kulturgintza ikastaroak antolatu ditu. Lehenengoan, oinarriko bertsogintza landuko dute, eta, bigarrenean, euskal kantutegi tradizionala landuko dute. Izan emateko epea bihar amaituko da. Informazioa eskuratzeko: 94-44710.42.

Bizkaiera/Abanto.

Axola euskara elkarteak, 40 orduko bizkaiera ikastaroa antolatu du (doakoa). Xehetasunak nahi dituenak telefono honetan eskura ditzake: 94-636.94.47.

Goi mailako masajea/Bilbo.

Gara elkarteak goi mailako masaje ikastaroak antolatu ditu ikasturte honetarako; bertan, masaje terapeutikoa eta kirol masajea landuko dituzte. Eskolak astelehenetan izango dira 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako: 94-423.75.91.

Bideoa/Izura.

Kanaldude hurbileko telebista proiektuaren kariaz, Alduarrak Bideo Elkarteak bideoari buruzko bi ikastaldi antolatu ditu. Lehenengo, urriaren 26, 27 eta azaroaren 2an izango da; eta bigarrena, azaroaren 23, 24 eta 30ean. Izan ematea mugatua izango da. Informazio gehiagorako, bi telefono: